



EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA UNIBERTSITATERA SARTZEKO HAUTAPROBA (D eredua) (A aukera)

Euskararen normalkuntzaren bide luzean, aspaldiko aurkariak ditugu hizkuntzari lotutako estereotipoak. Euskal Herriko ilustratu erdaltzaleek, konparaziorako, maiz ukatu diote ideia edo eduki konplexuak adierazteko gaitasuna. Hain segur ere, gisako **arrazoiak** gezurtatu beharra aitortuko genukeen baino akuilu handiagoa izan da, euskararen ekoizpen idatziaren azken hogeita hamar urte honetako hazkundean.

Tradizio urri batetik abiatuta eta ausardia eta ausarkeria tartekatuz, milaka testu sortu ditugu lehenago deus ez zen tokian. Harro gaude egindako lan itzelaz, frankotan esker txarrekoa gertatu zaigun arren. Lanbide honetan aritzen garenek zenbat aldiz ez ote ditugun ikusi hagitz euskaldun alfabetatuak, gure testuen erdal bertsioak hobesten, konprenigarriagoak zaizkielako. Halakoetan kontsolamendu bila abiatzen gara, geure buruari errepikatuz etorkizunerako ari garela, eta geure lanen kalitatea hobetu araz eta euskararen gizarte egoera aldatu araz gisako distortsioak halaberean desagertuko direla.

Halako esperantzen gainean ur hotza botatzera heldu da Jesus Rubio, «Euskararen garabideak» joan den urtean argitaratutako liburuan. Rubioren aburuz, euskararen afera ez da kanpokoa, soziala, barnekoa baizik, egiturazkoa. «Arazoa da -dio Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle honek- ezen gaur egun sozialki erabakigarriak diren hizkuntza esparru jasoetan (esparru teknikoan, juridikoan edo administratiboan, adibidez), euskararen barreneko **arrazoiengatik**, egitura-zioengatik alegia, arrunt gehiago kostatzen dela euskaraz aritzea ezi-ez euskaldun guztiek ederki erabiltzen duten gaztelaniaz edo frantsesez; eta, gogo guztien gaineratik eta erakusleihu apaindu guztien azpitik, gure kulturari bertan tresna komunikatibo ongi garaturik daukagularik inork gutxi erabiliko du tresna komunikatiboki azpigaratua (ez bada esparru oso babestu edo folklorikoetan). Hortik aurrera egin daitezke hamaika azterketa soziolinguistiko burutsu, hamaika azalpen extralinguistiko loriatsu, hamaika erkustaldi erretoriko konplexu edo simple, baina alferrik».

Gure hizkuntzaren egitura deklinatiboa eta ez prepositiboa eta esaldiaren antolakuntza anti informatiboa inguruko hizkuntza garatuagoen aldean, horra, Rubioren iritziz, euskararen aurrerabidea tratatzen duen **oztopoaren** funtsa. Eragozpen horiei orain arte eman zaizkien aterabideen kritika zorrotza egin ondoan, garbizalekeriak eraginda bazter-edo utzi ditugun baliabideak erabiltzea proposatzen digu irakasle bizkaitarrak. Are gehiago, horretan gelditu gabe, dugunetik edo izan dugunetik abiatuta, euskara preposizio-sistema batez hornitzeko saioa ere egin du liburuaren bukaeran.

Ez zaio ausardia falta Rubiori. Lehen-lehenik, euskararen testu **ekoizleek** beren artean ahapeka baizik aipatzen ez duten auzia mahai gainean jarri du eta hori ez da merezimendu tikia, aspaldidanik, gibelatzen ari garen eztabaida pizteko balio badu. Alde horretatik, nago benetako erabiltzaile gehienak bat etorriko direla, oro har, Rubioren diagnosiarekin. Bertzerik da atekatik ateratzeko egin dituen proposamenekin, muturrekoenekin bereziki. Nik, bederen, hizkuntzari izaera dinamiko eta ez fosilduari aitortuagatik ere, ez nuke neure burua ezagutuko honelako esaldiak idazten: «Ezin gara

argudioen bidez borrokatu aurka-on ideiak zeinen euskarri nagusia datzan autoritate-printzipio». Etorkizunean ez dakit; gaur egun, hori ez da euskara.

Jakin aldizkaria.

Galderak

1. Azpimarraturik agertzen diren hitzen sinonimo bana eman. Hona hitzak: *itzelaz, frankotan, eragozpen, eraginda*. (Puntu bat).

2. Aldaketa morfosintaktikoak baliatuz berridatzi azpimarraturik agertzen diren perpausak (Puntu bat)

3 Aipatu beltz nabarmenez azaltzen diren hitzen deklinabide-kasua eta numeroa, falta diren numeroen formak eman. Hona hitzak: *arrazoiak, arrazoiengatik, oztopoaren, ekoizleek*. (Puntu bat)

4. Letra etzanean dauden hitz atzizkidunak bila itzazu eta sortu hiruna hitz berri gehiago atzizki bakoitzarekin. Hona hitzak: *ekoizpen, etorkizun, erakustaldi, antolakuntza* (Puntu bat).

5. Aztertu testuaren kohesioa (3 puntu).

6. Egin ezazu testuaren gaineko balorazio kritikoa (2 puntu.).

7. Aipa itzazu zein diren Andu Lertxundiren idazlanak eta koka ezazu bere ingurune historikoan (Puntu bat).



EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA

UNIBERTSITATERA SARTZEKO HAUTAPROBA (D eredua) (B aukera)

“Ale, segi! Serbittu hoiekeri! Aber ze nahi duten”

Horrelako zerbait erran izanen zidan amak, segur aski, lehenbiziko aldiz etxeko ostatuko mostradore gibelera bidali ninduelarik. Zenbat urte ote nituen? Zenbat behar dira botilari bi eskuekin kontu eta edaria basoaren barrenera botatzeko, kanpora deus isuri gabe? Hamar? Hamaika? Mostradorearen bertze aldean bazen aulki luze bat, eta han jartzen zen jendeak ardoa edaten zuen. Ardo korrientea, gorria edo beltza. Gizonen begietako xurian bezala, kristalezko ontziak marra gorri bat izaten zuen erdi aldean. Hura baino pixka bat gehixeago bota behar izaten zen «txikitoa» erraten zitzaiona egiteko. Orduan pezeta bat kobratzen zen tamaina hori. Bat-batean herriko ostatu guzietan bi pezeta kobratzea erabaki zen egunean, jendeak **hagitz** gaizki hartu zuen. Orain petrolia upela edo etxebizitzak garestitu direla aditzen dugunean baino hagitzez makurrago. Bolada luze samarra eman zuten bezeroek marmarka, baina nagusiak gogor, pausorik atzera eman gabe.

Eta ardoarekin batera pastel batzuk ere nahi izaten zituen jendeak zenbaitetan, fabrikatik bueltan, batzuk bertzeekin solasean lasai ederrean hasten baziren. «*Mielanjel, ekarri paxintxi batzuk!*», oihu egiten zidaten, eta nik, metalezko kaxa irekita, ipotxen titiburuak iduri zuten haietako eskukada batzuk botatzen nituen Van Berkel paratzen zuen pisura.

Bakazio denboran ere, goizean goiz altxatu behar izaten genuen laguntzera, gehienbat ama gure logelara kolera sartu eta, leihoak zabal-zabal ireki bidenabar, oihuka hasten zelarik erraten zeinen lotsagarri zen gu oraindik ere ohatzean egotea, inguruko baserri guzietako gure 80 neska-mutikoak aspaldi jaikiak eta batera eta bertzera ari ziren **tenorean**. Orduan ikusten genituen Bezerroko meategira joaten ziren langileak, Marie Brizard anisa edaten zutenak lurraren barrenetara sartu aitzinetik. Haien ondotik, ogi eske eta bertzelako mandatueta etortzen ziren emakumeetako batzuk Kina-San-Clemente **xurrupe** bat hartzen zuten. Haien ere, dudarik gabe, euren etxeetako meazulo partikularrean basi baino lehen.

Zigarro pakete batzuk ere saltzen genituen, Celtas edo Ducados; baina, egia erran, zerbitzari lana **aisa** xamar egiten genuen, buruhauste handirik gabe. Jendeak ere ez baitzigun konplikazio izugarririk eskatzen, eta **poliki** moldatzen ginen.

Frigorifikoak nahasi zituen bazterrak edari kontu hartan. Armairu hozgarri hura etortzearekin basi ziren bezeroak «*Ardo hau epela zio!*» eta halakoak erraten, eta bertze jenero batzuk galdetzen ere bai. Udako egun beroetan zerbeza bihurtu zen guzien errege. Igandeetan, berriz, bermuta edaten zuten elizatik bueltan etortzen zirenek, ttanttarekin, edo bitter Cinzano, bertzela, eta haiek hotz egon behar zuten.

Horrela joan *ginen* geure ofizioaren karrera ikasten (deiturak eratziki zigun izan beharrari halabeharrez amore ematen: izena eta izana!). Denbora hartako bi egun gelditu zaizkit gogoan, haietan ostatua jendez zanpeteraino bete baitzen, eta bietan telebista

(orduantxe ekarri berria) tartean zela: Urtainen lehenbiziko konbatea eman zuten igande eguerdia eta Massielek Espainiaren izenean (eta katalanez kantatu nahi izateagatik zigortu zuten Serraten partez) Eurovision irabazi zuen larunbat arratsa. Bietan normalean baino musika dexente gehiago aditu zen diruaren kutxan.

Orduko bezero haiek bezalatsu ikusi zaituztet nik hemendik, **gibeleko** ate honetatik, aldizkari jori honetan zerbitzari izateko gonbita hartu nuenetik, «Hi, Mikel, jar hadi hortxe eta bota letra **ausarki**». Hementxe izan nauzue, txikitoak ateratzen hasi zen hamar-hamaika urteko muttiko haren atrebentziarekin. Hasieran, Jon Alonsorekin batera, aisaxeago, baina gero, hark uztearekin, lan gehixeagorekin. Nolanahi dela ere, gustura beti. Azkeneko honetara arte. Hauxe duzue nire **hondarreko** tragoa. Hau etxearen kontura, ze arraiol!

Nabarrak segituko du. Horretan ez egin dudarik. Istorio ederragoak eta kontu jakingarriak nork ekarri ez da faltako. Eta ni mostradorearen bertze aldera pasatuko naiz, zuek zaudeten horrako aulki luze horretan jartzera. Mila esker hor izateagatik, eta berriz ere elkar ikusi arte. Izan bizkor!

Mikel Taberna. Nabarra aldizkaria.

Galderak

1. Beltz nabamenez agertzen diren hitzen sinonimo bana eman. Hona hitzak: *hagitz, tenorean, xurrupa, aisa, poliki, gibeleko, ausarki, hondarreko* (2 puntu).
2. Aldaketa morfosintaktikoak baliatuz berridatzi azpimarraturik agertzen diren perpausak (Puntu bat)
3. Eman erregistro neutroko adizki hauei dagozkien hitanozko formak: *zen, zuen, ginen, genuen* (Puntu bat)
4. Aztertu testuaren koherentzia (3 puntu).
5. Egin ezazu testuaren gaineko balorazio kritikoa (2 puntu).
6. Aipa itzazu Bernardo Atxagaren idazlanak eta kokatu bere ingurune historikoan (Puntu bat)